




Garaiko talde mistoa sasoi betean dago herriko duatloia lehiatzeko / 20

Durangoko EH Bilduk salatu du gobernu taldeak euskara teknikari figura ezabatu gura duela / 5

Durungaldeko aspaldiko abesti eta jolasak jaso dituzte 'Txalopin txalo' liburuan / 2-3



40 Minutu Rock musika eta elkartasun jaialdia, zapatuan, Durangon / 4



"KLUBAREN ETA TALDEKIDEEN ALDETIK BABES OSOA SENTITU DUT"

Nassourou Ben Hamed Amorebietako futbol jokalaria irain arrazistak jasan zituen Cultural Leonesa taldearen zelaian.

Klubean babestuta sentitzen da, baina Cultural Leonesaren erantzunak harritu egin du.

"Komunikatuan gezurtizat jo naute", esan du. / 21

DENDAK BAI FEST



Parte hartu zozketan

DURANGO 2025 · LANDAKO GUNEA

OTSAILAK 21 22 23

688 738 102 Dendak Bai
www.dendakbai.eus

OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
10:00 - 14:00	10:00 - 21:00	11:00 - 14:00
17:00 - 21:00		

Laguntzaileak:

Antolatzailea:

Jone Guenetxea ABADIÑO

Marije Abaunza, Arantxa Abaunza, Pilar Ania eta Amaia Zearsolo abadiñarrek *Txalopin txalo* proiektuan parte hartu dute. Durangaldeko antzinako kantak eta jolasak batu dituzte transmisioan eragiteko, haria eten ez dadin. Mankomunitateak bultzatu du egitasmoa, Labayruk gauzatu, eta Berbaro euskara elkarteak dinamizatzaila lanetan dabil.

Zelan parte hartu duzue *Txalopin txalo* proiektuan?

Amaia Zearsolo: Olatz Petralanda nire errainaren ahizpak esan zigun lehengo abestiak berreskuratu gura zituztela, eta nik bitartekari lana egin nuen taldetxo bat batzeko.

Bakoitzak zuen aldetik zelan landu duzue gaia zuen inguruan?

Pilar Ania: Denoi galdetu ziguten zeintzuk abesti gogoratzen genituen, eta nik neuk gutxi gogoratzen nituen.

Marije Abaunza: Nire seme-alabek 40 urtetik gora dauzkate, eta hainbeste urte joan eta gero gogoratzen nituenak apuntatu nituen. Gero, denok batu ginean gehiago agertu ziren. Labayrukoek ere lagundu ziguten; beste leku batzuetan zelan esaten den esan ziguten.

Arantxa Abaunza: Nik koinatagaz landu nituen, eta gero, taldean, denon artean gogoratu genituen.

Amaia Zearsolo: Nik kuadrillakoei ere galdetu nien. Jolas batzuk ez nituen oso-osorik gogoratzen.

Zuen inguruan zelan transmititu dizkizute abesti eta jolas hauek?

A.Z.: *Txalopin Txalo*, *Katalamixon*, *Atxia motxia* eta horrelakoak amamagaz ikasi nituen. 7 urte nituela hil zen arren, akorduan ditut. Besteak eskolan, lagun artean.

A.A.: Nik txikitakoa ez dut gogoratzen. Lobak ditugu 40 urtetik gorakoak, eta etxera zetozeanean haiei abesturikoak gogoratzen ditut. Altzoan hartuta, gure amak *Txalopin Txalo* eta horrelakoak abesten zizkien.

Abesti hauek entzuterakoan zein pertsona edo egoera datorkizue burura?

P.A.: Abesti hauetatik gehien kantatu dudana *Katalamixon* dela esango nuke, abesten nien mugimendu hori ikasi zezaten umeei.

M.A.: Umeak ginenean *Urte Barri* eta *Erregen* abestera joa-



Marije Abaunza, Arantxa Abaunza, Pilar Ania eta Amaia Zearsolo.

"Abesti hauek transmititu egin behar ditugu, bizirik mantendu daitezten"

TXALOPIN TXALO PROIEKTUKO PARTE HARTZAILEAK ABADIÑO

Mankomunitateak bultzaturiko ekimenak Durangaldeko hainbat pertsonaren ekarpenak jaso ditu lehengo abesti eta jolasak jaso eta transmititu ahal izateko

ten ginen, eta normalean diru apur bat ematen ziguten.

A.A.: Sasoi hartan mandarinak, mahaspasak, ikopasak eta polboroiak ere ematen zizkiguten. Normalean, ez genuen horrelako jenerorik izaten etxean. Beraz, poltsatxoagaz joaten ginen kantuan, eta gero, jenero guztia etxe bateko mahai baten gainean

"TXALOPIN TXALO' ETA HORRELAKOETAN MUGIMENDUA ERE BADAGO ETA UMEEI ASKO GUSTATZEN ZAIE"

ipini, eta banatu egiten genuen. **A.Z.:** Gabonetan eskolatik abestera irteten ginen, eta ematen ziguten diru apurragaz txokolatada egiten genuen. Bizkotxoak jan eta txokolatea hartzen genuen. Etxean ez geneukan horrelakorik. Bestalde, nagusitan umeei abesturikoak gogoratzen ditut. Bueno, ez zen kantua bakarrik. *Txalopin txalo* eta horrelakoetan mugimendua ere badago eta umeei asko gustatzen zaie.

Abesti hauek leku bakoitzean aldaera desberdinak izaten dituzte. Zuen artean ere izan da desberdintasunik?

A.A.: Liburuan jaso direnak gehienek esaten dituzten eran dira. Guk gauza batzuk beste modu batera esaten ditugu. Batzuetan norberak asmatu ere egiten duela esango nuke (barrez). **Zuen ekarpenari dagokionez, abestirik gehienak gogoratzen zenituzten?**

A.Z.: Gehienak, bai. *Maritxu teiletako* adibidez, ez. Txikiak ginenean ez zen horrelakorik egiten. *Gabon-gauean ohitutuen dogu*, adibidez, ez genuen eza gutzen.

A.A.: Kasu batzuetan lehenengo estrofa gogoratzen dugu, baina gainerakoak ez.

Santa Ageda abestera joaten zintzen?

A.A.: Nagusiak joaten ziren. Eta guri tokatu zitzaigunerako ohitura galduta zegoen. Orain berriro berreskuratu da.

A.Z.: Gogoan dut soldadutzara zihoazen mutilak kantuan irteten zirela, dirua batzeko. Etxerik etxe etortzen ziren, eta uste dut Santa Ageda abesten zutela Arrazolan.

A.Z.: Abadiñon gabon kantetan etortzen ziren mutilak baserrira, berandu baten. Kopla guztiak batek abesten zituen, eta besteek makilagaz *Maria Jose*, *Jesus Mari Jose* estrofa abesten zuten.

A.Z.: Eguen Zuriren kasuan ere, uste dut mutilak joaten zirela abesten.

A.A.: Abestiak ere horrelaxe zioen, ezta?: *Eskola mutila ibilteko, limosna on baten bila*. Orain, *neska-mutilak ibilteko, limosna on baten bila*, dio abestiak.

Gaur egun ere ezagunak diren koplak ere jasotzen ditu liburua?

A.A.: Bai, abesti horiek bazkaloesteetan eta afalosteetan abesten ziren lehen. *Bat bi hiru eta lau*, *Txantxibiri* eta horrelakoak. Lehen ez zegoen ez telebistarik ez mobilik. Horregaitik asko abesten zen.

A.Z.: Gurean bazkariren bat egiten genuenean, aitak eta bere neba-arrebek asko kantatzen zuten. *Josepantoni* eta horrelakoak abesten zituzten. Bederratziz neba-arreba ziren, atera kontuak.

M.A.: Ohitura hori galdu egin da neurri handi batean. Bazkari bat izan genuen orain dela gutxi, eta paperak banatu zituzten abesteko.

P.A.: Lehen abesti gutxiago zegoen, eta haretzek abesten genituen. Baina, bai, ohitura hori asko galdu da. Orain, oster, abesti asko dago.

Hurrengo belaunaldiei abesti hauek transmititu dizkiezue?

A.Z.: *Katalamixon* eta horrelakoak bai, baina beste batzuekin oraintxe hasi naiz nire lobekin. Tabekin, esate baterako. *Aitita Maluteko* erakutsi nien eta atoa harrapatu zuten.

Abesti hauek zein balio dute?

A.Z.: Erakutsiz gero jarraituko dute eta transmititu egin behar ditugu, bizirik mantendu daitezten.

A.A.: Garrantzitsua da abestiak diren moduan liburu batean jasota izatea, sarritan estrofa bakarra gogoratzen dugu eta.



Atzamartxuak

*Hau joan zan plazara,
honek ekarri eban okelea,
honek ekarri eban etxera,
honek zartaginean erre,
eta potolo honek dana jan!*

*Honek egurra ekarri,
honek sua egin,
honek gertau,
honek proba,
honek jan potolo-potoloak!*

(Atzamarrak banan-banan seinatzen diren bitartean bakoitzeko esaldi bat errezitatzen da).



Atxia motxia

*Atxia motxia, konelipan,
zure semea errotan,
errota txikian klin-klan.
Katalina buelta,
buelta Matxalen,
txipi txipi txon,
Martin zapaton,
kainubera, tronpeta,
lau kirikirikon!*

(Jokoan hasi aurretik, taldekideen artean zozketa egiteko esaten da, umeak banan-banan seinatzen diren bitartean).



Arre, arre mandako

*-Arre, arre mandako,
bihar Tolosarako
etzi Iruñarako.
-Handik zer ekarriko?
-Zapatak eta gerriko.
-Norentzako?
-(Izena)rentzako*

(Umea altzoan edo hankan jarrita dagoela abesten zaio, zaldi gainean egongo balitz bezala).

BIDEOA
IKUSTEKO



Oraindik ez zara ANBOTOkoko whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp kanalera



Eskaneatu
QR kodea

* Izan zaitetz berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak



40 Minutu Rock jaialdiaren izako edizioa. 40 MINUTU ROCK

Landako dezibelioz eta elkartasunez betetzear

Landako Guneko hormak euskal presoen eta iheslarien eskubideen aldeko elkartasunez beteko dira zapatuan. Dozena bat musika taldetik gora taularatuko dira 40 Minutu Rock jaialdian. Anestesia, Süne, Nakar eta Dupla dira eurretari batzuk

Sentikortasun zentralako gaixoen bisita Museora

Eraikina itxita egon zen bisitan zehar, eta wifi sarea zein telefono mugikorrek amatatuta egon ziren

E.H. DURANGO

Durango Arte eta Historia Museoa sentikortasun zentralako gaixotasuna duten herriarrentzat egokitu ditu bere instalazioak; hau da, neke kronikoa, sentikortasun kimiko anizkoitza, fibromialgia, sentikortasun elektromagnetikoa edo elektrohipersentsibilitatea dutenentzat. Bisita gidatua ingurune seguru eta irisgarria

bermatu zuten: museoa itxita egon zen bisitan zehar, eta wifi sarea zein telefono mugikorrek amatatuta. Horrez gainera, beharrezko aireztapena bermatu eta substantzia kaltegarriak saihestuta garbitu zituzten instalazioak. Egitasmo horrek Durango Udalaren eta SFC-SQM Euskadi-AESEC Elkartearen arteko lankidetzari eskerrak ikusi du argia.



Astelheheneko bisita gidatua.

Delitu larriek behera egin dute Durangon; ebasketek, gora

Herritarren kexa kopurua ere hazi egin da 2023tik 2024ra bitartean. Udalak datuak kaleratu ditu

Ekaitz Herrera DURANGO

Durango Udalak 2024ko azken lauhilekoko segurtasun balantzea egin du, udaltzaingoagaz elkarlanean. Labur esanda, honako joera hauekin deskribatu daiteke udalerriko segurtasun egoera: delitu larriek behera egin dute, atxiloketa kopurua jaitsi egin da, eta udaltzaingoak esku hartze gutxiago egin du. Ebasketek eta herritarren kexek, ostera, gora egin dute.

Amaia Frontaura udaltzainburuak zehaztu duenez, ebasketen arloan telefono mugikorrak, diru-zorroren eta bizikleten lapurretak nagusitu dira. Era berean, herritarren kexek eta trafikoagaz loturiko arazoek ere gora egin dutela azaldu du. Kexarik ohikoenak ostalaritzako zarata, terrazak, tabernetako ordutegiak eta hiri-garbitzeta direla adierazi du udal-

Ekaitz Herrera DURANGO

Seguruena, 40 Minutu Rock jaialdia izango da urtero-urtero Durango euskal presoen eta iheslarien eskubideen alde antolatzen den jaialdirik handiena, eta aurtengo edizioak ere ez du hutsik egingo. Zapatu honetan, goizeko lehenengo orduetatik gaueko ordu txikiak arte, elkartasunez bezainbeste dezibelioz beteko dira Landako Guneko hormak. 10:30etik aurrera, dozena bat talde baino gehiago taularatuko dira hango oholtza bietan, bertaraturikoak dantzan ipintzeko zein euskal presoen eta iheslarien eskubideak aldarrikatzeko. Talde nagusiak honako hauek izango dira: Nakar, Anestesia, Süne, Tatta & Denso, Toc, Añube, La Txama, Pinpilinussies, Dupla, Kaleko Urdangak, Chulería Joder eta Sukena. Horiez gainera, honako musika talde hauek arituko dira giroa bertzen, Landako Gunearen kanpoaldeko karpa txikian: Pelma & Luis selektorak, Fito Skins, Maruxak, Ganibeta eta DJ Pezon. Antolatzaileek adierazi dutenez, euskal presoen eta

iheslarien egoerak "hobera" egin du azken urteotan, baina hemendik aurrerako "kaleratze prozesuak eta etxeratzeak ahalik eta duinenak" izan daitezten, beharrezkotzat jo dute gizartea "aktibatzen jarraitzea". "Egoera aldatu den arren, kalean egoten jarraitu behar dugu, aldarrikapenak egiten, baita 40 Minutu Rocken ere", adierazi dute.

Ekitaldirako sarrerak eskuragarri daude oraindino. 40 Minutu Rock ekitaldiaren sare sozialetan eskuratu daitezke txartelak, baita egunean bertan ere, txaterdelgietan. Bestalde, Euskotrenek honako informazio praktikoa hau zabaldu du: zapatu goizean eta gauean tren zerbitzu gehigarriak egongo dira Durangorako.

Fermin Muguruzaren bisita

Zapatuko jardunaldiak bero-bero hasiko du eguna, Fermin Muguruzak kontzertua Durango eman eta egun bira. Izan ere, musikari irundarrak bere aletxo ipini gura izan du jaialdiagaz elkarlanean, Plateruean emanaldia eginda.

LABUR-LABUR

Desfibriladore mugikorra

Gailua eguneko 24 orduetan egongo da eskuragarri Durango udaltzaingoan. Udalerriko elkarteek eta erakundeek maileratu hartu ahal izango dute.

Euskaraldiaren aurkezpena

Otsailaren 20an, kanpainako ezaugarri guztiak aletuko dituzte San Agustin kulturguneko ekitaldian, 18:30ean hasita. Besteak beste, udalerriko hamaikakoa aurkeztuko dute eta hainbat bideo proiektatuko dute.

Haize Arrosaren kanta berria

Haize Arrosa taldeak kanta eta bideo klip berria estreinatu ditu: 'Durangak'. Bertan, 1500. urtean Durango bizirik erre zituzten emakumeak omendu gura izan dituzte.

Durangoko gobernu taldeak euskara teknikariaren figura ezabatu gura duela salatu du EH Bilduk

Abenduan euskara teknikaria jubilatzen zenetik, postu hori ordezkorik barik dago. Gobernu taldeak herrigintzako koordinatzaile teknikari postua sortu gura du, "udalaren hizkuntz politikak eta hezkuntza estrategiak modu bateratuan lantzeko"

Jone Guenetxea DURANGO

Abenduan Durangoko Udaleko euskara teknikaria jubilatzen zenetik, postu hori ordezkorik barik dago. Koalizio subiranistak kritikatu duenez, "euskara teknikariaren figura kentzea eta Herritarren Batzordeko koordinazio teknikari postu bat sortzea" da udal gobernuaren asmoa.

Langile berri hori Herritarren Batzordearen eremuen koordinazioaz arduratuko litzateke, hau da, "Kirola, Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Euskara" arloak lantzeaz, "besteak beste".

EH Bilduk euskara teknikariaren postuaren garrantzia nabar-



Durangoko euskara teknikari postuaren etorkizuna zalantzan dago.

mentu, eta erabaki hau euskararen sustapenean "atzerapausoa" litzatekeela azpimarratu du.

"Ikuspegi estrategikoa"

Hedabide honek galdetuta, Durangoko gobernu taldeak erabakiaren inguruko argibideak eman ditu. "Durangoko udal gobernuarentzat euskara sustatzea lehenetsunezko konpromisoa da, eta, horregaitik, euskara teknikariaren postua ez da ezabatzen; egungo beharrezkoak egokitzen zaion eredu berri baten barruan berregituratzen da", adierazi du Paule Sanchez zinegotziak. "Herrigintzako koordinatzaile tek-

nikariaren figura sortzeak ez du euskararen kudeaketa bigarren mailan uzten; aitzitik, pertsona honek euskara eta hezkuntza arloetako ardura zuzena izango du, ikuspegi estrategiko integratibo batez. Euskara oinarritzea da eta zeharkakotasunez landua izan dadin eman da pausoa", gaineratu du. Zinegotzi jeltzaleak gehitu duenez, Durangoko Udal Euskaltegiak eta AROA euskara sustatzeko plan estrategikoa garatzeko kontratatutako enpresak "lan esanguratsua egiten jarraituko dute euskara bultzatzeko". Hizkuntza eta hezkuntza estrategiak bateratzea nabarmendu du zinegotziak: "Kudeaketa eraginkorragoa, koordinatuagoa eta moldakorragoa bermatzea da helburua, udalaren hizkuntz politikak eta hezkuntza estrategiak modu bateratuan lantzeko", esan du Sanchezek. Antolaketa aldaketa honek ez duela euskararen sustapenean "atzerapausorik" ekarriko ere esan du jeltzaleak, eta nabarmendu du haren garapena eta sustapena modu "eraginkorragoan bermatzeko estrategia berri bat" dela.

'Kafezaleak' taldeak irabazi du Hirukoa galaren seigarren edizioa



Hirukoa galako familia argazkia.

Ekaitz Herrera DURANGO

Berbarok bere helburu guztiak bete zituen joan zen zapatuko Hirukoa galan: hogeitahirukoteren lekua aurreikusi zuen, eta leku guztiak beteta jokatu zuten lehiaketa. Taldeek geografiari, kulturari eta euskari buruzko galderei erantzun behar izan zieten, besteak beste. Memoria gaiak ere izan zituzten, eta proba fisiko bat: karta dorre handiena nork eraiki. Kafezaleak hirukoteak irabazi zuen gala.

Desgaitasuna dutenen kirol inklusioa aztergai Durangon

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak diagnostiko bat landuko du, udalerriko kirol eremuan desgaitasunen bat duten pertsonen errealitatea eta beharrezkoak aztertzeko. Oztopoak eta aukerak identifikatuko dituzte, eta, horretarako, ikastetxeekin, kirol klubekin, guraso elkarteekin eta beste hainbat elkartearekin lan egingo dute. Diag-

nostikoa sei fasetan egingo dute, hemendik eta maiatzera bitartean. Lehenengo, datuak batu eta koordinazioa hasiko dute, eta, ondoren, kontsulta egingo dute toki erakundearen artean. Gero, emaitza horiek espezialistekin aztertu ondoren, proposamenak txosten batean batuko dituzte. Azkenik, ondorioak jendaurrean aurkeztuko dituzte. Egitasmoan parte hartu gura dutenek diagnosticos@haszten.org helbidean eta 747 473 556 telefonoan eman dezakete izena.



Santander Indifest 2024

Ikuslogoraren Saria, Ikusizun Onenaren Saria, eta Antzezle Onenaren Saria, gizonen zein emakumezkoen kategorietan.

POR VOLUNTAD PROPIA

Perigallo Teatro

Otsailak 15, larunbata

19:00etan



San Agustín KULTUR GUNEA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

LIBURU-AURKEZPENA

7.300 miligramo eszitalopram




Otsailak 27, osteguna.
19:00etan.



2.100 miligramo eszitalopram



artealea 23, durango
946 810 776
info@hitzibunadenda.com

"Geroago eta jende gehiagok eskatzen du laguntza"

GIOVANNA MONASTERIO ESKU HUTSIK ELKARTEKO KIDEA

Tabu izaten jarraitzen duen arren, geroago eta normalizatuago dago jendartean dolu perinatalaren gaia; neurri batean, Esku Hutsik elkartearen jardunagaitik da hori

Aritz Maldonado ELORRIO

Esku Hutsik elkarteak *Dolu perinatala ikusaraziz* erakusketa ipini du Iturri kultur etxean. Nerea Garaizarrek ateratako argazkiak dira erakusketaren ardatza. Horrez gainera, mahai-ingurua antolatu dute hilaren 18rako, gaian sakontzeko. Bertan, bere testigantza emango du, besteak beste, Giovanna Monasterio abadiñarrak. Esku Hutsik elkartearen kidea da, sorreratik.

Zer ikusiko da erakusketan?

Dolu perinatala bizi izan duten zenbait familiak idatzitako gutunak daude, adibidez, euren lekukotzekin. Argazkiak ere badaude; momentu horretan zer pasatu zen edo zelan pasatu zen erakusten duten argazkiak dira, eta familiako zenbait kidek dolua zelan bizi duten erakusten dutenak.

Lehenengoz muntatu duzu erakusketa hau?

Ez, orain bi edo hiru urte egin genuen lehenengoa, Getxon (Garaizar hangoa da). Estudioan



Giovanna Monasterio.

bertan ateratzen ditu argazkiak, edota familien beharrianetara egokitzen da.

Mahai-ingurua ere egingo duzue.

Orokorrean, dolu perinatalari buruz arituko gara. Elkartetik ni joango naiz, eta nik bizi izan du-

dana ere kontatuko dut. Familia bat edo bi ere bertan egotea aurreikusten dugu; euren testigantza emango dute. Amagandiko edoskitze aholkulari bat ere egongo da, eta emagin bat ere bai. Gure esperientziei buruz berba

egingo dugu denok, eta, horretaz gainera, elkartearen aurkezpena egingo dut nik, zeintzuk tresna ditugun elkartearen, zer laguntza eskaini dezakegun, zer lan egin dugun orain artean, eta, batez ere, laguntasuna behar duenari zertan lagundu diezaiokegun.

Zer ikusiko da erakusketan?

Euskal Herrian ez zegoen horrelako beste elkarterik elkartzen hasi ginenean. Gurasoak Bizkaian elkartzen hasi ginen. Guraso diot, baina, egia esan, gehienak amak ginen; Getxo eta Bilbo ingurukoak eta ni. Pentsatu genuen beharrezkoa zela gaia Euskal Herri osora zabaltzea. Nik dakidala ez dago elkarte asko; badakit bat Bartzelonan dagoela, eta Madrilen beste bat dagoela uste dut.

Azken urteetan gehiago berba egiten da dolu perinatalari buruz, baina oraindik tabua da?

Bai, guztiz. Jendeak ez du horretaz berba egiten. Nik lasai kontatzen dut, baina jendeagaz berba egiterakoan konturatu naiz hurbilean ere antzeko kasuak izan ditudala; baina, behar bada, ez dira berba egiten diren gaiak. Jende nagusiagaz ere gertatu zait inoiz, gaia atera eta eurak esatea: 'Hara, niri ere gertatu zitzaidan'.

Igarri duzu elkartearen jardunari eskerrak kalean gehiago berba egiten dela gaiari buruz?

Baietz esango nuke, eta gehiago lantzen dela gaia. Tresnak badaudela ikusita, geroago eta

jende gehiagok eskatzen du laguntza. Lehen, protokolorik ere ez zegoen. Azkenengoz gertatu zitzaidanean, adibidez, ospitalean ez zidaten ezer esan. Orain, Jaur-laritzagaz eta Osakidetzagaz lanean ibili eta gero, protokolo bat dago; zenbait emagin eta mediku aholkatu ditugu. Horrelako kasu bat gertatzen denean, elkartearen triptiko bat banatzen da, eta hor laguntzarako telefonoak ere badaude, adibidez; *amabitxi* papera ere egiten dugu. Batzuek ez dute laguntza psikologikorik behar; norbaitegaz berba egitea baino ez dute gura, horri deitzen diogu *amabitxi* funtzioa. Kontua asko aldatu da eta jendeak geroago eta berba gehiago egiten du honetaz. Orain, Nafarroako Gobernuagaz berba egiten gabilta. Apurka-apurka gauzatxoak lortzen gabilta. Dolu perinatalaren eguna urriaren 15a da, eta egun horretan, adibidez, zenbait udaletxetan kolore arrosa-urdinak (dolu perinatalaren koloreak) isiotzen dituzte. Iaz, adibidez, San Mames zelaiaren kanpoko argiak kolore horietakoak izatea lortu genuen. Baita Durangoko kioskoan ere, elkartasuna adierazteko.

"EUSKAL HERRIAN EZ ZEGOEN HALAKO ELKARTERIK GU ANTOLATZEN HASI GINENEAN"

El Salvadorko ordezkariak batek Berriz bisitatu du

Euskal Fondoa Lankidetzarako Tokiko Erakundearen Elkarteak ekarri du ordezkariak Euskal Herrira



El Salvadorko eta Durangaldeko ordezkariak.

A. M. BERRIZ

El Salvadorko ordezkariak batek Berriz bisitatu du oraintsu. Erdialdeko Amerikako herrialdeetako ordezkariak bat da, Patricia Canalesek (CDMYPE USOk zuzendaria), Keysi Centenok (Los Izalcos Mankomunitatearen Garapen Turistikorako Planaren proiektuaren arduraduna) eta Josue Bonillak (Los Izalcos Mankomunitatearen kudeatzailea) osaturikoa, eta Euskal Fondoa Lankidetzarako Tokiko Erakundearen Elkartearen bitartez egon da Euskal Herrian, nazioarteko lankidetzako programa baten barruan. Berrizera egindako bisitan, Orlan Isoird Berrizko alkateak egin zien harrera, Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkateagaz eta Maria Herrero Elorrioko alkateordeagaz batera. Hiru lankidetzako programako kide dira.

Zornotzako Berba Lapikok kulturartekotasuna bultzatuko du

Otsailean zehar, Berba Lapikok ekintzak egingo ditu Zornotzako kultur aniztasunaz gogoeta egiteko

A. M. ZORNOTZA

Otsailean zehar, Berba Lapiko ekimenak Zornotzako kultur aniztasuna ezagutaraziko du, eta horren inguruan hausnartzera gonbidatu gura ditu herritarrek. Besteak beste, otsailaren 22an ipuin kontaketa egingo dute udal liburutegian; izan ere, egun horretan Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna ospatzen da. "Ekintza honetan, ikaste-txeetako jatorri desberdinetako familiek euskaraz eta herrian berba egiten diren beste hizkuntza batzuetan kontatuko dituzte

ipuinak, parte hartzaileei beste tradizioetara hurbiltzeko aukera eskainiz, eta, aldi berean, familia etorkinak euskarara hurbilduz", azaldu dute antolatzaleek.

Berba Lapiko egitasmoagaz, herritarrekin hartu-emanan duten gaiak jorratzen dituzte udal liburutegian. Urtarrilean, adibidez, "uraren garrantziaz" hausnartzeko ekintzak antolatu zituzten; gaiekin lotura duten komiki eta liburuak bultzatzen dituzte hilean zehar, gaiari buruz hausnartzeko.

Okm: batzen gaituen distantzia

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran.

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

LA PERLA

- %15eko deskontua sasoiari jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan.

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotritateak

- %15eko deskontua saio solteetan.

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoiako lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik).

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

BERRIA!

URTXINTXA JOSTAILU DENDA

- %5eko deskontua erosketan guztietan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua.



Atera etekina txartelari!

Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558

Deitu eta
eman izena!



Udalbatza-aretoa eremu moldagarri bihurtu dute

Atxondoko Udalak udalbatza-aretoa berriztu du. Aurrerantzean, panel mugikorrek erabilia, hiru gela sortu ahal izango dira bertan. Gune berriztuak ETB1eko 'Irabazi arte' telesailaren aurrestreinaldia hartuko du, gaur, 20:00etan



Udalbatza-aretoa panel denak ipinita daudela. Modu honetara, hiru gune daude.

Joseba Derteano ATXONDO

Atxondoko Udalak udalbatza-aretoa eraberritu du gehiago erabiltzeko helburuagaz, ohar batean jakinarazi duenez. Lehen eremu bakarra zena erabilera anitzeko gune bihurtu du. Hori

lortzeko, panel mugikorrek ipini ditu aretoko alde batean. Sistema horren bitartez, bertako eremua moldagarria da eta gela bakar bat izan daiteke orain arte lez, edo bitan zein hirutan banatu daiteke, uanean

AIRE GIROTUA ETA LEIHO BERRIAK IPINI DITUZTE. GUNEA INTSONORIZATU EGIN DUTE

uneko beharrezan araber. Gela bakoitzak bere aulki, mahai eta armairuak ditu eta areto osoan beste hobekuntza batzuk ere egin dituzte. Esaterako, gune osoa intsonorizatu dute eta aire girotua ipini dute gela berotu edo hozteko. Horrez gainera, leiho berriak ipini dituzte.

"Gure udalerrian beharrezkoak diren eremuak erabilgarriago egitea da gune berriaren helburua. Aurrerantzean, herritarrek aukera zabalagoa izango dute bilerak edo jarduerak egiteko", adierazi du Eneitz Agirre alkateak. Gogoratu behar da eskolako eraikin zaharreko gela bat ere erabilera anitzeko gune lez erabiltzen dutela gaur egun.

Udalbatza-aretoa eraberritze-ko lanek 150.000 euroko aurrekontua izan dute. Proiektua gauzatzeko, udalak 62.000 euroko diru laguntza jaso du Bizkaiko Foru Aldunditik, oharrak jasotzen duenez.

'Irabazi arte', gaur

Gaur bertan, otsailak 14, dago aukera gune eraberritua bertatik bertara ezagutzeko. Izan ere, ETB1eko *Irabazi arte* telesail arrakastatsuen laugarren denboraldiko aurrestreinaldia eman- go dute bertan, mahai nagusiaren atzean dagoen telebista handian. UEMaren bitartez antolaturiko ekitaldia da eta 20:00etan hasiko da.

Jubilatuena tabernako kudeaketa, lehiaketara

Atxondoko Udalak beste ahalegin bat egingo du jubilatuen tabernaren kudeaketa esleitzeko

J.D. ATXONDO

Atxondoko Udalak beste ahalegin bat egin du Apatamonasterioko jubilatuen taberna zabaltzeko. Horrela, martxan ipini du tabernaren kudeaketa lizitatzeko prozesua, bere webgunean jakinarazi duenez. Interesdunei begira, hileko alokairua 50 eurora (BEZa barne) jaitsi du: 600 euro urtean. Proposamenak aurkezteko, 10 egun naturaleko epea dago, otsailaren 11tik hasita. Lehiaketako oinarriak eta baldintzak udaleko webguneko (www.atxondo.eus) Kontratatzaileren Profila izeneko atalean jaso daitezke. Tabernako esleipena urtebetekoa izango da, eta beste urte batez luzatzeko aukera egongo da. Taberna parke baten eta umeen jolasgune baten ondoan dago. Kanpoaldean terraza ipintzeko aukera eskaintzen du. Sukaldea eraberrituta dago eta beharrezko azpiegitura guztiak ditu, udalak informatu duenez.

Izurtzan otsailaren 23an egingo dute txitxiburduntzi eguna

J.D. IZURTZA

Tradizioari eutsiz, eta Durangaldeko eta Bizkaiko beste hainbat herritan egiten den moduan, Izurtzan ere txitxiburduntzi eguna egingo dute laster. Otsailaren 23ko domeka eguerdian izango da. Urtero legez, udalak plaza inguruan batzeko eta eguerdi ingurua lagun artean emateko gonbita egingo die herritarrei. Txitxiburduntzia egiteko osagaiak Izurtzako Udalak ahalbidetuko ditu aurten ere. Plaza inguruan sua egingo du, eta, horrez gainera, edaria ipiniko du bertarazten diren herritar eta familientzat. Plazako suan erre gura diren elikagaiak, ostera, norberak eraman beharko ditu.

Agirresarobek umeentzako ipuinak kontatuko ditu Mañarian

Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa datorren asteko eguaztenean izango da, Mañariko liburutegian

J.D. MAÑARIA

Mañariko Udalak umeentzako *Argi ibili!* izeneko ipuin kontaketa saioa antolatu du datorren asteko eguaztenerako. Saio horretan, Ixabel Agirresarobek sei urtetik gorakoentzat aproposak diren ipuinak kontatuko ditu, 18:00etan, Mañariko liburutegian.

Ixabel Agirresarobek (Usurbil, 1971) 30 urtetik gora daromatza lan horretan, eta esperientzia handia du ipuin kontalari lez. Batez ere, haurrentzako saioak egiten ditu, baina

helduentzat eta familia osoarentzat direnak ere egin izan ditu. Horrez gainera, ibilbide zabala du antzerkigintzan. Bere kabuz ez ezik, Hankagorri eta Goringo taldeekin ere aritu da kale antzerkiko ikuskizunak egiten. Beste batzuen artean, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel antzezlanen parte hartu zuen*. Tebistako umore saioetan ere parte hartu izan du, hala nola *Brinkolan* eta *Wazemanken*. ETB1 telebista kanalean *Ipu-pomamua* saioan ere aritu zen kontalari lez.



Ixabel Agirresarobe, saio batean. NOAUA

BIDALI ZURE
ARGAZKIA
688 635 041
ZENBAKIRA EDO
WEBGUNERA

INAUTE RIETAKO

ARGAZKI LEHIAKETA

SARIA
EUSKAL
PRODUKTUEKIN
OSATUTAKO
OTZARA BAT

ARGAZKIAK
BIDAITZEKO
AZKEN
EGUNA
MARTXOAK 6

▶ anbotto
@ x f s



**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

OTSAILEKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Errigoraren eskutik
Euskal Herriko produktuen otzara.



Goazen kontzerturako sarrerak.
Zornotza Aretoa. Martxoak 1.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko
eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Udalak jakinarazi du 429 etxe huts daudela Abadiñon

Abadiñoko Udalak udalerriko metabolismo demografikoaren eta etxebizitzaren diagnostia egin du. Mikel Urrutia alkateak eta Jose Luis Navarro zinegotziak azterketako emaitzen berri eman zuten astelehen goizean prentsaurrekoan

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Udalagintariak prentsaurrekoan azaldu zutenez, gaur egun 429 etxebizitza huts daude Abadiñon, eta Etxebide plataformaren bitartez 419 etxebizitza eskaera egin dituzte abadiñarrek. Horietatik 301 alokairuan bizitzeko eskariak dira, eta lau eskaritik bat 36 urtetik beherako herritarrenak dira. Bestalde, 2040a bitartean azterketak 179 etxebizitza sortzeko beharra aurreikusten duela azaldu dute.

"Datuok erronka legez ikusten ditugu. Badakigu etxebizitzaren gaiak ardura handia eragiten duena gizartean; hori horrela, lau lan lerro identifikatu ditugu", adierazi du Mikel Urrutia alkateak. Honako hauek dira lan lerroak: lehenengo, etxebizitza hutsak merkaturatzea lortzea; bigarrena, baserriak hainbat etxebizitzatan zatitzeko aukera aztertzea; hirugarrena, lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko aukera aztertzea; eta laugarrena, Eusko Jaurlaritzako



Jose Luis Navarro eta Mikel Urrutia.

Etxebizitza Sailari udalak dituen hiru lursail eskaintzea, hauetan alokairuzko etxebizitza publikoak eraiki ditzaten. Jose Luis Navarrok aurreratu duenez, otsailaren 20an batzartuko dira Etxebizitza Sailagaz. "Abadiñon arazo handia dugu, 2015etik HAPOa geldi-

rik dugulako. Horrek arazoak eragiten ditu herria garatzeko eta herrian eraikitzeko orduan. Abadiñoko gazteak inguruko herrietara joaten dira eta arazo horri irtenbide bat eman behar diogu", adierazi du Jose Luis Navarrok.

Mallabiko Gazte Asanbladak udal aldizkaria kritikatu du

M.Z. MALLABIA

Urtarrilaren amaieran, Mallabiko Udalak Ze Berri udal aldizkaria kaleratu zuen. Orain, udal aldizkariak "berriro ere gaztelania lehen lerroan" ipini duela kritikatu du Mallabiko Gazte Asanbladak. "Abenduan egin dako UEMAKo bilera batean azaldu zen aldizkariak linguitikoki aldaketa bat behar zuela. Bertaratu ziren herritarrek ondorio horretara heldu ziren. Baina badirudi ez dutela esandakoa birplanteatu. Bigarren alea gaztelania lehen lerroan ipiniz atera dute berriro", kritikatu dute. "Jarrera hauek euskara zapaltzea bultzatzen dute", gaineratu dute.

Ascen Dominguez da 'Ez Esan' jokoaren urtarrileko irabazlea

Berbalaguneko kideek dagoeneko kaleratu dituzte otsaileko galderak. Hile amaierara arte eman daitezke erantzunak

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Mallabiko hilerik hileko galdera-erantzunen lehiaketa martxan da berriro ere. Herritarrek herrian zehar zabaldu diren galderei erantzun behar izaten diete. Eta urtarrileko irabazlea eta finaleko lehenengo sailkatua Ascen Dominguez da. Dominguezegaz batera, Eneritz Aranburu ere sailkatu da finalera.

Bestalde, Mallabiko Berbalaguneko kideek dagoeneko iragarri dituzte otsaileko galderak. Herritarrek hile amaierara arte dute aukera parte hartzeko.



Ascen Dominguez, saria jasotzen.

Bretainia eta Normandia aldeak ezagutzeko bidaia adinekoentzat

Interesdunek otsailaren 21era arteko epea dute bidaiari izena emateko. Bakoitzaren prezioa 1.520 eurokoa da



Durangaldeko adinekoen bidaia kultural bat. DURANGOKO UDALA

Ekaitz Herrera DURANGALDEA
Mankomunitateko eta Durangoko Udaleko adinekoen zerbitzuek kultur bidaia bat antolatu dute eskualdeko adinekoentzat. Interesdunek otsailaren 21era arteko epea dute izena emateko bidaiari joateko. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bidaia bakoitzak 1.520 euroko kostua izango du pertsonako, eta honako zerbitzu hauek izango ditu: gidari baten laguntza ibilbide osoan zehar eta programako txango eta bisita guztiak. Logeletan banaka lo egin gura dutenek 200 euroko prezio gehigarria ordaindu beharko dute.

Bidaian zehar, honako inguru hauek bisitatu dituzte: Rennes, Carnac, Vannes, St. Brieuc, Dinan, St. Michel eta St. Malo. Ondoren, ibilbidea

Caen hirira lekualdatuko dute, eta handik Bigarren Mundu Gerran aliatuek lehorreratze lanetarako erabili zituzten inguruak ezagutzeko dituzte, La Pointe du Hoc eta Arromanches barne. Azkenik, bisita panoramiko gidatua egingo dute Parisko kaleetan.

Datak eta inskripzioak

Irteerak 2025eko maiatzaren 24rako, maiatzaren 27rako, ekainaren 3rako eta ekainaren 17rako programatu dituzte. Eskari kopuruak eskaintako leku kopurua gainditzen badu, zozketa egingo dutela azaldu dute antolatzaileek. Hori otsailaren 25ean egingo lukete, 16:00etan, Elkartegian. Interesdunek Mankomunitatean eta Durangoko Udalean eman dezakete izena.

Saharar errefuxiatuei laguntzeko kanpaina hasi dute lurretan

Aitziber Basauri IURRETA
Iurretako Udalak *Elikagai kilo bat errefuxiatuentzat, liburu bat zuretzat!* kanpaina solidarioari ekin dio aurten ere. Saharar errefuxiatuen kanpamentuetan duten elikagai faltari aurre egiteko, ahalik eta elikagairik gehien eramatea du helburu ekimenak; otsailaren 24ra arte iraungo du. Ekimenaren bultzatzaileek arrosa, konpresa paketeak, pasta, lekaleak, atun latak, sardina latak, azukrea eta oliba olioia batu gura dituzte batez ere, Río de Oro elkarteari eman eta haiek kanpamentuetara bidaltzeko. Dohaintzan emandako elikagai kilo baten edo konpresa paketeen truke liburu bat emango dute.

Mendi Tour zirkuituaren eskutik, mendiko filmik onenak Otxandion

lazko Mendi Film Jaialdiko filmik onenak ikusteko aukera egongo da, Mainondoko gimnasioan, otsailaren 22an

A.B. OTXANDIO

2025eko Mendi Tour zirkuituak Otxandion egingo du lehenengo geraldia Durangaldean. Otsailaren 22an Mainondoko gimnasioa doazen herritarrek iazko Bilboko Mendi Film Jaialdiko filmik onenak ikusteko aukera izango dute. Hiru film emango dituzte: *Jamie*, *Zazpi* eta *Andrea, an unpaved route*; hain zuzen ere, iazko jaialdiko film laburrik onena, euskarazko filmik onena, eta kirol eta abentura filmik onena, hurrenez hurren. Emaldia 19:00etan hasiko da.



'Zazpi' filma. MENDI FILM

Txitxiburduntzi eguna hilaren 23an, Trumoittearen eskutik

E.H. GARAI

Hainbat urtean antolatu barik egon eta gero, Garaiko Trumoitte elkarteak Txitxiburduntzi eguna berreskuratuko du. Otsailaren 23an egingo dute, hurrengo domekan.

Mendi ibilaldi batez hasiko dute eguna. 10:30ean irtengo dira, plazatik. Gero, bueltakoan, plazan sua isiotu eta txitxiburduntzia egingo dute. Trumoitte elkarteko kideek azaldu dutenez, eurek egingo dute sua eta eurek eramango dute ogia. Gainerako jatekoa herritar bakoitzak eraman beharko du etxetik. Eguraldiak laguntzen ez badu, ekitaldia frontoian egingo dute.



ZALDIBARKO UDALA

Erabilera anitzeko gela berritua

Irailean hasitako obrak amaituta, Zaldibarrek erabilera anitzeko gela berritua estreinatu du. Hile hauetan guztietan, azpiegitura gaur egungo premietara egokitu dute. Hala, lokalaren ezaugarri teknikoak hobetu dituzte, gaur egun bertan antolatzen diren ekintzei –berbaldiak, proiektzioak eta tailerrak– begira.

Betikoak
flexografía

BULEGORAKO
ZIGILUAK
FOTOLITOAK

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

L'atelierren domina festa

Zapatuan, L'atelier dantza eskolakoek koreografia berriak estreinatu zituzten VTS IBERIA lehiaketan, Burgosen, eta oso emaitza onak lortu zituzten. Oiane Azconizaga (dantza klasikoa), Leire Cotore (dantza garaikidea) eta Ethan López (hiriko dantza) izan ziren koreografien egileak. Maiatzean Avilan jokatu den VTSko finalerako sailkatu dira.



DURANGALDEA ASTEON

Gernikako Arbolaren kimu bat Muruetatorren

DURANGO Otsailaren 21ean landatuko dute arbola, Muruetatorre dorretxearen aurreko berdegunean, Udal Euskaltegiaren parean. Ekitaldian Mireia Elkoroiribe Durangoko alkatea, udalbatzako zinegotziak eta Bizkaiko Batzar Nagusietako ordezkariak egongo dira. Durangoko Udalaren esanetan, egitasmoaren helburua Gernikako Arbolaren "sinbolismoa indartzea" da, "Euskadiren historiaren, nortasunaren eta balio demokratikoen ikur lez".

Maiatzaren 17an Rio de Oren bertso lehiaketa

DURANGO Rio de Oro elkarteak musika taldeak bertسیونatzeko lehiaketa antolatu du. Ekitaldia Plateruenean egingo da maiatzaren 17an, 20:00etatik aurrera. Izena emateko aukera zabalik dago riodeorodurango@hotmail.com helbidean. Lehiakideek ordezkarietako baten izen-abizenak, taldearen izena, bertسیونatuko duten taldea eta hartu emanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa zehaztu beharko dituzte.



Del Barrioren azken lana, kalean

DURANGO Virginia Andres del Barriok hirugarren eleberria kaleratu du: *Aquel "no" la hizo libre*. Indarkeria matxistari buruzko lana da eta Urriken eta Etxebarrian dago salgai.



ZALDIBAR ARGITU

Sololuze eta Beltran gogoratu dituzte Eitzagan

ZALDIBAR Bost urte joan dira Zaldibarko zabortegia amildu zenetik. Hala ere, ingurumen delituen auzibideak zabalik jarraitzen du, oraindino instrukzio fasean. Zaldibar Argitu plataformak deituta, oroimen ekitaldia egin zuten domekan Eitzagan, "gertaturikoa ez ahazteko eta erantzukizunak argitze"ko". Dantzariak egon ziren, eta lore eskaintza ere egin zuten. Era berean, hondakinetan harrapatuta geraturiko Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran gogoratu zituzten.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrindia.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILADEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GURUTZEGRAMA

A crossword puzzle grid is shown with various kitchen-related icons placed around it. The icons include a red tray, a red fork, a red pot, a red salt shaker, a red cup, a red frying pan, a red spoon, a red moka pot, and a red cake. The grid is composed of grey squares. To the right of the grid is a list of words in Basque: ERRETILUA, GATZONTZIA, GURAIZEAK, KAFETERA, KATILUA, KAZOLA, KOILARA, SARDEXKA, TAJINA, and ZARTAGINA.

ERRETILUA
GATZONTZIA
GURAIZEAK
KAFETERA
KATILUA
KAZOLA
KOILARA
SARDEXKA
TAJINA
ZARTAGINA



SUDOKUA

Kokatu beheko goxoak beheko lauki zurietan.



DIFERENTZIAK

Aurkitu zazpi diferentziak.



MARGOTU

Margotu gurago duzun moduan.





Aritza Rodriguez eta Garoa Bugallo. MARIO LEZAUN

"Garrantzisia da heriotzaz berba egitea, tabuago ez bihurtzeko"

ANTZERKIA Oihanean eta itsasoan egon eta gero, umeek espaziora bidaiatuko dute 'Elara, bidaiaria izarretara' antzezlanean; abentura berri honeguz, haurrek ere dolu eta galera prozesuak bizi dituztela mahaigaineratuko du Mar Mar konpainiak

Aritz Maldonado DURANGO

Joan den astean Barakaldo Antzokian estreinatu eta gero, zapatuan, hilak 15, Durangaldeko Mar Mar konpainiak Zornotza Aretoan taularatuko du bere lan berria. "Hitzordu berezia izango da, Zornotza Aretoa plaza berezia delako, eta, gainera, gure etxetariko bat ere badelako", azaldu du konpainiako Igor Iglesiasek.

Zelan estreinaldia?

Oso ondo joan zen eta pozarren gaude. Oso tipikoa da hori esa-

tea, baina horrela izan zen. Antzezlan honek prozesu luze-luzea izan du eta emaitza oso pozgarria da. Antzezlaneko gaia, heriotza, ez da edozer, garrantzitsua da, eta ez genuen gura gauzak esan esatearren. Buelta asko eman dizkiogu eta oso pozik gaude emaitzagaz. Publikoaren harrera ere ona izan zen. Argi genuen umeentzako ikuskizun bat izan behar zuela, heriotzaren eta galeraren kudeaketa eta dolua jorratu arren, eta lortu dugula uste dugu.

"BUelta ASKO EMAN DIZKIogu ETA OSO POZIK GAUDE EMAITZAGAZ"

IGOR IGLESIAS
MAR MAR KONPAINIAKO
TEKNIKARIA

Umeek ulertzen dute eta etxera zenbait erreminta daramate gaia lantzeko. Umeek ere dolu prozesuak bizi dituztela kale-ratu gura genuen, nahiz eta

txikiagoak izan eta beste era batera bizi. Eta prozesu horretan laguntzeko erremintak eskaini gura genituen.

Heriotza bera nahikoa tabu izan da beti.

Umeak oso publiko exigentea dira, oso zintzoak, eta gustatzen bazaie esaten dute, eta gustatzen ez bazaie, berdin. Nagusiok gehiago estali dezakegu egoera (barrez). Horrelako gai bat tratzea garrantzitsua zela uste genuen, tabuago ez egiteko. Normala den prozesu bat da, mundu guztiak bere bizitzan zehar biziko duen esperientzia bat. Umeek galdera asko dute, baina ez dugu erantzunik. Eta hori beldurrik barik landu gura genuen. Hala ere, obra ez da drama bat, abentura pilo dago. Umeentzako antzerki bat da, baina mezu bategaz.

Berriro ere Leire Bilbaogaz lan egin duzue.

Aurreko obran gaia proposatu genion eta berak istorioa idatzi zuen. Oraingoan, ostera, ideia gugarriak jaio da, espazioan girotuta zegoen istorio bat kontatu gura genuen, eta Leirek bide bat markatu digu, hortik ekiteko. Leirek urte asko darama umeentzako poesia idazten, eta oso argi eta ondo daki umei zelan kontatu gauzak. Guretzat ezinbestekoa zen beragaz bidea egitea, bera delako profesionalena alde horretatik. Psikologo eta pedagogo askogaz tratatu dugu gaia, oso gai potentea delako. Askok ikasi dugu eta Leireren berbak eta esateko modua beharrezkoak ziren. Bakoitzak gure aldetik ibilbide luzea dugun arren, konpainia gaztea gara eta oraindino bilatzen gabiltza gure lan egiteko moduak eta formulak. Honetan, argi genuen espaziora joan gura genuela, lehenengoan oihanera eta bigarrenean itsasora joan eta gero. Asmoa zein zen komentatu genion Leireri, eta berak gidoiaren abiapuntua ipini zigun gero.

la lau urtean hiru lan sortu eta estreinatu dituzue.

2021ean pandemiaren sustoa gainetik kendu barik, konpainia propioa sortzea erabaki genuen. Hasieran zer izan behar zen jakin izan banu, beharbada ez nuen berriro egingo, baina emaitzak ere hor daude, egundokoak dira.

Ez da batere erraza hemengo zirkuitu sarean sartzeara eta egonkortzea; pentsa, *Elara* lanagaz emanaldi sorta handi bat lotuta dugu jada. MAX sarietan ere izendatu gaituzte! Dena oso bizkor doa eta gu ez gara oso jakitun zer lortzen gabiltzan. Baina, berez, gure izaeran lana eta exigentzia elkarren eskutik doaz. Konpainiak lau urte egingo ditu otsailean. Oraindino biran gaude *Un pez en el corazón* lanagaz, *Arrainak bihotzean* lanaren gaztelaniazko bertsiogaz estatuan. Gurearen moduko konpainia txiki bat antzezan bigaz biran egon ahal izatea berria da, eta pozik gaude. Gure kasuan, lan handia egiteak ez du esan gura emaitzak etorriko direnik, baina oraingoan halantxik da. Lanak bere fruitua izan du. Hori bai, ondo dakigu bidaiaria hau maratoi luzea dena. **Exigentek zaretela diozu. Alde teknikoago batetik, obra espazioan kokatzea erronka handia izan da?** Beti ahalegintzen gara teknika ere zaintzen, eta, kasu honetan ere, argi genuen espazioaren ambientazio hori lortu behar genuela, modu batera edo bestera. Ez genuen gura denok imajinatzen ditugun irudi horiek, planetena edo izarrena, larregi erabili. Dosifikatzen ahalegindu gara.

'Arrainak bihotzean' lanagaz MAX sarietarako izendatu zintuzteten, eta langa bat ipini zenuten hor. Orain, presio gehiago izan duzue?

Egia esateko, ez. Aurrekoan, bai, gehiago igarri genuen, *Tarzan* lana egin eta gero antzoki askok konfiantza izan zutelako guran, eta askok *Arrainak bihotzean* programatu zutelako. Orduan igarri genuen zelan-baiteko presioa, bai, eta pentsatu ezin genuela hutsik egin. Kasu honetan, argiago dugu zer egin dezakegun, eta zein maila eman dezakegun. Guretzat gakoetariko bat da egiten dugunagaz eta erakusten dugunagaz eroso egotea, gai delikatuak direlako, eta datorrela datorrena. Guretzat luxu bat da ikustea zelako konfiantza erakutsi duten programatzaileek gu kontratatuta. Pertsonalki ere oso gustura geratu naiz. Antzezanaren maila ona da, oso polita eta dibertigarria geratu da, jendeari gustatzea espero dut. Baina ez diogu aparteko beste helbururik ipini geure buruari.



Mikel Lertxundiren erakusketa, ikusgai

ARTEA Gaurtik aurrera, Mikel Lertxundiren (Berriatua, Bizkaia, 1951) 'Formatik haratago' erakusketa ikusgai egongo da Durangoko Arte eta Historia museoan; 80ko hamarkadatik gaur egunera arteko lanak batu ditu bertan; 30 inguru daude ikusgai

Aritz Maldonado DURANGO

Mikel Lertxundiren lanak ikusgai egongo dira gaurtik aurrera Durangoko Arte eta Historia museoan. *Formatik haratago* erakusketan bere ibilbideko hainbat lan batu du; Lertxundiren lanik ezagunenak eskulturak izan arren, pintura lanak ere ikusi daitezke erakusketan. Materialen eta elementuen uztartzea ere konstante bat izan da bere lanean. "Harria, zura eta burdina material funtsezkoak dira bizitzeko, oinarritzkoak. Gero, ura, airea eta sua elementuak gehitu dizkiet nire lanetan", azaldu du aurkezpenean Lertxundik berak.

Bost hamarkada baino gehiagoko ibilbidean, Lertxundik nazioarteko azoka ugari erakutsi ditu bere lanak, besteak beste Arco (Espainia), FIA (Venezuela) eta Nicaf (Japonia) azoka ezagunetan. Durangaldean ere hainbat eskultura du; besteak beste, Durangoko Zuhatzola parkean. Hori



Mikel Lertxundi.

nahikoa ez, eta, Garazi Arrizabalaga museoaren zuzendariaren berbetan, Lertxundik sarri bisitatzen du eraikina. "Batuetan erraz egiten dira gauzak, eta honakoa horietarikoa izan da; lekua egitea izan da gaxena", zehaztu du Arrizabalagak.

Erakusketaren barruan poesia errezitaldi musikatu ere egingo dutela aurreratu dute. Aurkezpena "martxoan zehar" egingo dute, eta, besteak beste, Joseba Sarrionandiak eta Peru Magdalenak parte hartuko dutela azaldu dute.



'Vida' antzezlanaren irudia. MAITANE CAMPOS

Iurretako 'Antzerkia bultzatuz' zikloa asteburuan hasiko da

ANTZERKIA Zikloa gaur hasiko da, 'Izeiaren kabi morea'-gaz, 18:00etan, Ibarretxe kultur etxean

A. M. IURRETA

Iurretako Udalak *Antzerkia bultzatuz* zikloaren edizio berria antolatu du, antzerkia herritarren artean bultzatzeko asmoagaz. Jaialdiak hamargarren edizioa izango du aurtengoa, eta zazpi emanaldi egingo dituzte umeentzat eta nagusientzat. Lehenengoa, asteburu honetan, Aiara konpainiaren *Izeiaren kabi morea*. Otsailaren 21ean, helduentzako lehenengo antzerki emanaldia egingo dute; La red konpainiak *Vida* taularatuko du, krisialdi pertsonalak gainditzeari buruzko lana. Umentzat Eidabe Ekimen Kultu-

ralaren *Amama irrifarren ondarea* eta Elvi sabeliztunaren *Nire maletatxoan* emanaldiak egongo dira.

Martxoaren 14an, Txintxaun antzerki kolektibo berriztarrak *75 puñaladas* taularatuko du. Maiatzaren 16an, Anodino Teatroak *Obsoletus* komedia egingo du. Zikloa Skene Teatrok amaituko du, *El salto de Léucade* dramagaz. Emanaldi guztiak Ibarretxe kultur etxean izango dira; umeenak 18:00etan, eta nagusienak 19:00etan; sarrerak bertan daude salgai, hiru euroan (18 urtetik beherakoek euro bateko prezio sinbolikoa ordaindu beharko dute).



GAI LIBREAN

AINHOA OLASO SOPELANA BEHARGINA

Elkar Suntsiketa Ziurtatua

Neguan lantokitik arratsaldeko seietan irtetea ilegala dela zioen Perreoaren Inperioko jainkosa batek. "Hori maitasunaren kontra doa", kantatzen omen zuen.

Antzera pentsatzen dugu hemen ere baina guk ez dugu ahots goran askotan esaten. Agian orain ez dakigulako lanera noiz sartu eta noiz irteten garen ere.

Eta mundu mailako nekearekin heldu gara ostiraleara. Asteko bosgarren egunari ondo eutsi diogu, norbaitek eutsi behar ziolako. Garagardo bat gutxi da, bi gehiegi dira eta hiru ez dira inoiz nahikoak: bizitza zahutzeari ekin diogu elkarren alboan.

"Zer da ba inpotentzia, orpoen orde, hankapean ezpainak josita dituzten ahoak izatearen inpresio hori ez bada?", bota du albokoak. Ez dakigu Palestinaz, mag-nate teknologikoez edo eskualdeko metaleko sektoreaz ari zen, baina asteko susmo guztiak laburbildu dizkigu.

"BIZITZA ELKARREKIN ORDENATzea ETA ESPERANTZAREN ALDEKO DIZIPLINA MANTENTZEA ADOSTU DUGU"

"GARAGARDO BAT GUTXI DA, BI GEHIEGI DIRA ETA HIRU INOIZ EZ DIRA NAHIKOAK"

Eta puntuazio markarik gabeko minen zerrendarekin jarraitu dugu: Donald Trump norberaz moztatu behar izan da Etxe Zuriko atetik berriz sartzeko ala zer eta inork ez du gerren lekuko izan nahi baina mehatxu hitzaren debaluazioa hasi besterik ez da egin berriz ere langileon eskubideak egongo dira jokoan ez nuen espero hemen ere halako eraginik izan zezakeenik bai eta gainera historikoki gehiagotan gertatu izan da agian distopia ez da etorkizunerako begirada egunerokoari begiratzeko modu pesimistena baizik.

Tentsio egoeran, batak besteari buruan pistola bana elkarri jarrita bezala, bakea mantentzeko modu hilgarri bezain eraginkorrean, bizitza elkarrekin ordenatzea eta esperantzaren aldeko diziplina mantentzea adostu dugu. Maitasunaren alde.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENA-GO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 14

DURANGO Kontzertua
Armarri + Harakin.
Rugby tabernan, 21:30ean.

DURANGO Tailerra
Haurrentzako marrazki tailerra Usue Egiagaz (16 laguntzako lekua).
Otamotzeta Auzogunean, 17:30ean.

DURANGO Erakusketa
'Fornatik haratago' (Mikel Lertxundi) erakusketaren inaugurazioa.
Artistak bisita gidatua egingo du.
Arte eta Historia Museoa, 18:30ean.

ELORRIO Erakusketa
'Dolu perinatala ikusaraziz' (Esku Hutsak elkarte).
Iturri kultur etxean, otsailaren 28ra bitartean.

IURRETA Kontzertua
Gorka Naste.
Korta tabernan, 20:00etan.

IURRETA Antzerkia
'Izeiaren kabi morea' (Alara).
Ibarretxe kultur etxean, 18:00etan.

ZORNOTZA Antzerkia
'Ni flores, ni funeral, ni cenizas, ni tantán' (La Dramática Errante).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZORNOTZA Erakusketa
'Biluztasuna' (Pintzelak elkarte).
Zelaieta zentroko erakusketa gelan, otsailaren 21era arte.

ZORNOTZA Proiektzioa
'Infiltrats' dokumentala.
Matrailu gaztetxean, 21:30ean.

ZAPATUA 15

ABADIÑO Lehiaketa
XXXV. Burduntziko bildots txapelketa, 10:00etan hasita.
Bildots bazkaria.
Probalekuan, 14:00etan.

BERRIZ Liburu aurkezpena
'Txalopin Txalo' kantu liburuaren aurkezpena.
Kultur Etxean, 17:00etan.

DURANGO 40 Minutu Rock
Nakar + Anestesia + Süne + Tatta & Denso + TOC + Añube + La Txama + Pinpilupussies + Dupla + Kaleko Urdangak + Chuleria Joder + Sukena. Gainera, Fito Skins + Maruxak + DJ Pezon + Pelma & Luis Selektotarrak + Ganibet + DJ Elepunto.
Landako Gunean, 11:00etan hasita.

DURANGO Antzerkia
'Por voluntad propia' (Perigallo).
San Agustín kulturugunean, 19:00etan.

IURRETA Kontzertua
Aro & Edu (Gorazarre Amarali).
Korta tabernan, 20:00etan.

IURRETA Irteera
Morgara bizikleta irteera. lurreta Txirringuluri Elkarte.
Iurretan, 10:00etan.

ZORNOTZA Antzerkia
'Elara, bidaia bat izarretara' (Mar Mar).
Zornotza Aretoan, 17:30ean.

ZORNOTZA Azoka
Bigarren eskuko azoka.
Matrailu gaztetxean, 11:30ean.

DOMEKA 16

DURANGO Tailerra
Surrandien maskara tailerra (Kriskitin taldea).
Otamotzeta auzogunean eta Kriskitinen lokalean, 11:00etatik 13:00etara.

IURRETA Ipuin kontaketa
Saroa Bikandi ipuin kontalaria (4 urtetik gorako umeentzat).
Plazan, 17:00etan.

IURRETA Irteera
Sondikara bizikleta irteera. lurreta Txirringuluri Elkarte.
Iurretan, 10:00etan.

MARTITZENA 18

IURRETA Berbaldia
'Haur-gazteak eta pantailak' (Hizlaria: Miren Ros Aiartzaguena-Bidelagun proiektua). HHTik LH3rako umeen gurasoentzat.
Ibarretxe kultur etxean, 17:30ean (izena eman behar da).



TANTTAKA

BERRIZ Antzerkia
Tanttaka antzerki taldeak Simon Stephensen 'Heisenberg' antzezlaren euskarazko moldaketa aurkeztuko du Berrizen. Naiara Arnedo eta Ramon Agirre antzeleak igoko dira oholtzara, Fernando Bernuesen zuzendaritzapean.
Otsailaren 15ean, zapatua, Kultur Etxean, 19:00etan.

EGUAZTENA 19

ABADIÑO Ipuin kontaketa
Itziar Gamero ipuin kontalaria (4-8 urte arteko umeentzat).
Errota kultur etxean, 17:00etan.

ELORRIO Berbaldia
'Produktu aukerak: bertakoak, ekologikoak... Proiektu aukerak ezagutu' (Bergarako EreinDaJan eta Lazkaoko Biziola).
Iturri kultur etxean, 18:30ean.

MAÑARIA Ipuin kontaketa
'Argi ibili!', Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariaren eskutik (6 urtetik gorakoentzat).
Liburutegian, 18:00etan.

EGUENA 20

DURANGO Aurkezpena
Durangoko Euskaraldiaren hamaikakoaren aurkezpena.
San Agustín kulturugunean, 18:30ean.

BARIKUA 21

DURANGO Kontzertua
Suziri (Elektronika harrapakariak).
Rugby tabernan, 21:30ean.

DURANGO Kontzertua
Gonzalo Portugal gitarristaren blues kontzertua.
Otamotzeta auzogunean, 19:00etan.

ELORRIO Dantza
'Lana' ikuskizuna (Osa-Mujika).
Arriola antzokian, 20:00etan.

ELORRIO Deialdia
Gaztetearen 37. urteurrenerako batzar zabala. Ondoren, afaria.
Gaztetearen, 19:00etan.

IURRETA Kontzertua
Mon (Gorazarre Sabinari).
Korta tabernan, 20:00etan.

IURRETA Antzerkia
'Vida' (La Red).
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

ZALDIBAR Ipuin kontaketa
'Bi printzesa eta sorgin bat'.
Liburutegian, 17:00etan eta 17:30ean.

ZAPATUA 22

ABADIÑO Antzerkia
'Miñan' (Artedrama).
Errota kultur etxean, 19:00etan.

BERRIZ Ipuinak
'Rudi liburuak kontatzen familietan' (Pello Añorga ipuin kontalaria).
Kultur Etxean, 12:15ean.

BERRIZ Kontzertua
Joseba Irazoki.
Kultur Etxean, 19:00etan.

DURANGO Antzerkia
'Hurrengo geltokia' (Karrika).
San Agustín kulturugunean, 19:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Azerik eta Erbi basoa salbatzen dute
Domeka 16: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Bridget Jones. Loca por él
Barikua 14: 18:00, 20:30.
Zapatua 15: 16:30, 19:00, 21:30.
Domeka 16: 17:00, 19:30.
Astelehena 17: 17:45, 20:15.
Martitzena 18: 17:45, 20:15.
Eguaztena 19: 19:00.

Captain America: Brave New
Barikua 14: 18:00, 20:30.
Zapatua 15: 16:30, 19:00, 21:30.
Domeka 16: 17:00, 19:30.
Astelehena 17: 17:45, 20:15.
Martitzena 18: 17:45, 20:15.
Eguaztena 19: 19:00.

Vermiglio
Barikua 14: 18:00, 20:30.
Zapatua 15: 19:00, 21:30.
Domeka 16: 19:30.
Astelehena 17: 17:45, 20:15.
Martitzena 18: 17:45, 20:15.

Polican
Zapatua 15: 16:45.
Domeka 16: 17:00.

Otello (opera)
Eguaztena 19: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Queer
Zapatua 15: 20:00.
Domeka 16: 20:00.
Astelehena 17: 20:00.

Klara eta hazi magikoaren misterioa
Domeka 16: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Ciudad de asfalto
Domeka 16: 20:00.
Astelehena 17: 20:15.

Azerik eta Erbi basoa salbatzen dute
Domeka 16: 17:00.
The human hibernation (JBGA)
Martitzena 18: 19:00.

IURRETA Kontzertua
El hombre del valle.
Korta tabernan, 20:00etan.

OTXANDIO Mendifilm
Mendi Tour. Mendi Filmeko onena: 'Jaime' + 'Zazpi' + 'Andrea an unpaved route' filmen emanaldia.
Mainondoko gimnasioan, 19:00etan.

ZORNOTZA Zorber Fest
Streetwise + Unidad Alavesa + Nafarroa 1512 + Kaparrak.
Zelaieta parkean, 18:00etan.

ZORNOTZA Bakarrizketa
Gurutze Beitia.
Etxanoko ermitan, 20:00etan.

"Ilusioa egiten zigun talde mistoa eratzea; lortu dugu"

DUATLOIA Domeka honetan Garaiko erreleboen taldekako laugarren duatloia jokatuko da. Etxeko taldeak talde misto bat izango du irteera lerroan, lehenengoz. Oinatz Urtiaga, Andrea Diaz, Martiñe Usabel eta Aitor Astorkia izango dira ordezkariak



Oinatz Urtiaga, Andrea Diaz, Martiñe Usabel eta Aitor Astorkia.

Maialen Zuazubiskar GARAI Ilusio bereziagaz eta etxekoen babesagaz, domekako taldekako duatloian lan txukuna egiteko esperantza dute Garaiko Triat-

loi Taldeko kideek. Talde bat baino gehiago lagun kuadrilla den laukote honek open mailan parte hartuko du, talde mistoen kategorian. Garaiko Triatloi Tal-

deko kideei ilusio berezia egiten zien etxean, eurek antolatutako lasterketan, talde misto batez lehiatzea. Ondo kostata lortu dute, maila honetan neska bik

eta mutil bik osatu behar dute-eta taldea. "Lehenengoz parte hartuko dugu talde mistoagaz. Iaz ez genuen taldea egitea lortu, eta mutiletan parte hartu genuen, federatuen mailan. Aurten, azken momentuan lortu dugu talde mistoa osatzea. Taldean neska federatu bakarra daukagu, baina Andrea prest agertu da domekako lasterketan gugaz aritzeko, eta, beraz, open mailan lehiatuko gara", esan du Oinatz Urtiaga garaitarrak.

San Blas egunean, lasterketarako hamabost bat egun falta zirela, eman zuen baiezkua Andrea Diaz abadiñarrak. "Gaztetan Mugarra Triatloi Taldeagaz lehiatzen nintzen, baina aspaldi utzi nuen mundu hau. Baina San Blas egunean Martiñek neska bat behar zutela esan zidan, eta ea animatuko nintzen galdetu zidan. Baietz esan nion, birritan pentsatu barik", esan du Diazek.

Hori horrela, domeka honetan, otsailak 16, Garaiko Triatloi Taldeak lehenengoz talde mistoa izango du irteera lerroan. "Taldekideoi ilusioa egiten zigun talde mistoa ateratzea, eta lortu dugu. Orain, apur bat sufritu eta gozatzea besterik ez zaigu geratzen", esan du Martiñe Usabelek. "Herrian triatloi talde bat daukagu, Euskadiko Txapelketa izango den lasterketa antolatzen dugu eta guk talderik ez ateratzea penagarria litzateke", jarraitu du Urtiagak. "Azkenean

lortu dugu eta domekan disfrutatzea da gure asmo nagusia. Eta, jakina, ahalik eta ondoen egiten ahaleginduko gara", gaineratu du Aitor Astorkiak.

Etxekoen berotasuna

Oinatz Urtiagak eta Aitor Astorkiak badakite etxean lehiatzea zer den, iaz ere parte hartu zuten eta. Taldeko beteranoak dira eta lasterketako gauzarik politena etxekoen berotasuna dela azpimarratu dute. "Bertakoak gara eta geuk jasotzen dugu animorik gehien. Animo horiek indarra ematen digute", nabarmendu du Astorkiak.

Bestalde, herritarrei eta inguruko herrietako kideei domeka goizean Garaira bertaratzeko deia egin diete. "Ez da duatloi konbentzional bat; jendea ikustera ohituta ez dagoen diziplina desberdin bat da. Oso entretenigarria da, momentu oro jendea plazatik pasatzen dabil eta. Iaz, esaterako, oso lasterketa lehiatua izan zen, azken itzulira hiru talde heldu ziren-eta garaipena lortzeko aukeragaz. Seguru aurten ere ez dela giro onik faltako", esan du Urtiagak.

GARAITARREI ETA INGURUKO HERRIETAKO KIDEEI LASTERKETA IKUSTERA JOATEKO DEIA EGIN DIETE

Duatloiak protagonista izango dira Garain eta Zornotzan

DUATLOIA Zapatuan erlojupeko duatloia egingo dute Zornotzan; domekan erreleboka arituko dira Garain

J.D. GARAI/ZORNOTZA

Eskualdean duatloia protagonista izango da asteburuan, taldekako proba bigaz. Zapatuan erlojupeko duatloia egingo dute Zornotzan, eta domekan errelebokoa Garain.

Amorebieta-Etxanoko Triatloi Taldeak antolatuko du Zornotzako proba, eta Larrea kiroldegi inguruan hasi eta amaituko da. Lehenengo taldea 16:00etan irtengo da. Izen ematea bete egin dute eta 66 talde arituko dira lehian. Erlojupeko modalitatean, talde bateko

kide guztiak batera irteten dira, eta lehenengo lauren denborak kontuan hartzen dira sailkapenerako.

Garaiko duatloia Euskadiko txapelketa izango da, iaz legez.

GARAIN KADETE MAILAKO DUATLOIA BERRESKURATU DUTE; ZAZPI TALDE ARITUKO DIRA

Izan ere, Garaikoa mota honetako proba bakarra da Euskal Herrian. Duatloiko erdigunea plaza ingurua izango da eta lehenengo lasterkariak 10:00etan irtengo dira. Federatuentzat ez ezik, federatu bakoentzat ere badago proba bat: opena. Lasterketa biak kontuan hartuta, 19 taldek parte hartuko dute nesketan, mutiletan eta mistoan. Aurten, kadete mailako lasterketa berreskuratu dute, eta eurretari zazpi talde lehiatuko dira. Garaiko ibilbidea iazko bera da. Korrika hilerrirainoko joan-etorria egingo dute. Bizikletan Goiuriantza irtengo dira eta hara ailegatu orduko, Iurretako lurretan, buelta eman eta Garaiko plazara itzuliko dira (8 kilometro guztira). Azkenik, korrikako ibilbideari buelta bat eman beharko diote.



Iazko aldiko parte hartzaileak korrika.

"Baloia ikutzen nuenero txistu egiten jarraitu zuten"

NASSOUROU BEN HAMED (KAMERUN, 2002) AMOREBIETA KLUBEKO FUTBOLARIA
Joan zen asteburuan Cultural Leonesa taldearen zelaian jokaturiko partiduan, Amorebieta klubeko futbolariak irain arrazistak jasan zituen zale biren partetik

Joseba Derteano ZORNOTZA

Nassourou Ben Hamed futbolariak bost urte daramatza estatuan bizitzen, eta hau estreinako urtea du Amorebietan. Aurretik, Leganes B eta Moralo taldeetan aritu da, besteak beste.

Kolpe bat hartuta zelaatik kanpora zeunden, medikuaren arreta jasozten. Zer gertatu zen orduan?

Hasieran irain asko entzun nuen harmailetatik, baina zelai gutzietan entzuten direnen modukoak ziren, denbora galtzen nobilela eta antzerakoak. Baina pertsona bik "puto negro, puto negro" esan zidaten. Buelta erdi hartu eta identifikatu egin nituen. Begira geratu nintzaien eta "puto negro, vuelve a tu patera" esan zidaten. Laugarren epaileari kontatu nion, eta honek epaile nagusiari. Gertaturikoa kontatu nion epaile nagusiari eta arrazakeriaren kontrako protokoloa aktibatu zuen. Bi-hiru minutuan partidua geratuta egon zen. Ondoren, ea partidua aurrera egin zezakeen



Nassourou Ben Hamed, eguazteneko entrenamendu saioan.

galdetu zidaten, eta nik baietz esan nien, azken batean horretara joan nintzela, jokatzera.

Horrela jaso zuen epaileak bere aktan.

Epailearen aktatik azkenengo esaldiak harritu ninduen. Eurek,

epaileek, ez zutela ezer entzun idatzi zuen. Batez ere laugarren epaileagaitik diot hori. Ni baino apur bat harutzago zegoen, baina nik garbi entzun nuen eta nire taldekideek ere bai. Beraz, berak entzun ez izanak harritzen nau.

Harmailetan inork esan zuen ezer pertsona bi horien jarreraren aurka?

Ez, ez nuen horrelakorik ikusi. Kontrara esango nuke. Berrero zelairatu nintzanean eta baloia ikutzen nuen bakoitzean txistu jotzen jarraitu zuten. Aurkari genituen futbolarien partetik ere ez nuen babesik jaso. Hori baino txarrago, jokalaria batek "zuek beti duzue aitzakia berdina" esan zidan. Ez dakit 'zuek' horrek nori egiten zion erreferentzia: zuek 'beltzok' ala zuek 'Amorebieta taldekook', orokorrean. Edozelan ere, keinu itsusia iruditu zitzaidan.

Cultural Leonesa klubetik deitu dizute edo, zelanbait, kezkatu dira zure egoeraz?

Ez. Atera duten komunikatua baino ez zait heldu. Eta komunikatua gezurtizat jo naute. Une batean epailearen aktari egiten diote erreferentzia, eurek ez zutela ezer entzun. Nik ez diet klubari eta Cultural Leonesaren zalegoari ezer leporatzen. Zazpi mila pertsonatik beti daude edukazio gutxiko batzuk. Baina hori bai, seguru dakit pertsona bi horiek non jesarrita zeuden eta identifikatuko nituzkeela.

Amorebieta klubarengandik eta taldekideengandik babestuta sentitu zara?

Bai, momentuan bertan, egun hartan zehar, eta hurrengo egunetan ere bai. Klubaren eta taldekideen babes osoa sentitu

dut. Nigaz daudela eta familia bat garela sentitzen dut.

Hainbat taldetan jokatu duzu. Aurretik beste gertaera arrazistarik jasan duzu zelaian?

Ez, inoiz ere ez. Alboko sakeetan-eta denerik esan didate, baina beste era bateko irainak izan dira, orokorrak, epaileek asteburuero entzuten dituztenak. Irain arrazistak entzun ditudan lehenengo aldia izan da.

Eta zure bizitza pertsonalean?

Ezta ere. Egon naizen talde gutzietan eta herri denetan ondo tratatu naute. Ez begirada txarririk eta ezta keinu txarririk ere. Lehenengo aldia da hau.

Zer mezu helarazi gura zenioke gizarteari?

Horrelako irainek ez dutela tokirik ez zelaian ez gizartean. Denok gara gizakiak. Futbola jatorri askotako pertsonak batzen dituen kirola da. Bizi dugun aroan, gizartean inoz baino batua egoa egon behar dugu. Diberstitatea geroago eta handiago da. Ez diezaiozun inori diferente begiratu azalaren koloreagaitik. Arrazakeriak edo beste edozein diskriminazio motak ez du lekurik gure gizartean.

"AURKAKO TALDEKO JOKALARI BATEK 'ZUEK BETI DUZUE AITZAKIA BERDINA' ESAN ZIDAN"



JOKALDIA

KARMELE GISASOLA ZENIKAZELAIA HERRI KIROLAK

Ikasitakoa praktikan jartzen

Duela urte eta erdi, Federaziotik abisatu ziguten, Eusko Jaurlearitzako lege aldaketa bat dela eta, 2026tik aurrera, txapelketan parte hartzen zuen kirolariaren entrenatzaileak "entrenatzaile titulua" beharko zuela. Hau da, orain arte harrijasotzaile batek bi laguntzaile bazituen txapelketan, 2026tik aurrerako txapelketetan bietako batek entrenatzaile titulua beharko zuela. Notizia honek pixka bat sorpresaz harrapatu gintuen. Bagenekien hasiak zirela urtebete lehenago entrenatzaile tituluak ateratzen baina ez genuen uste derrigorrezkoa izatera iritsiko zenik. Hori dela eta, neba eta biok, beste hamazortzi bat lagunekin batera, titulua ateratzeari ekin genion, gerora zerbaitetarako balioko duen esperantzan. Izan ere, gu harrijasotzaile izan gara, ez dugu inoiz pentsatu guk beste batzuk entrenatu beharko ditugunik, baina tira, inoiz ez da jakiten zer etorriko den. Uste genuen nahiko erraza izango zela, kontuan hartuta entrenatzaile asko gure aitaren edade inguruak edo zertxobait gazteagoak

"NEBAK ETA BIOK TITULUA ATERATZEARI EGIN GENION, GERORA BALIOKO ZUEN ESPERANTZAN"

"HAU DA MOMENTUA IKASI DUDANA PRAKTIKAN JARTZEKO, ETA, EGIA ESANDA, BERTIGO PIXKA BAT EMATEN DU"

direla, eta lehenago edo geroago beraie ere iritsiko zaialako titulua ateratzeko momentua. Baina dena ez zen erraz-erraza izan. Pasatu genituen gure orduak liburutegian, azterketak egin,... Baina titulu bat eskuratzeko hori da egin behar dena. Ezer egin gabe ematea ez litzateke normala. Beti erakutsi digute zerbait lortu nahi duenak saiatu beharra daukala. Eta tira, lortu dugu titulu hori ateratzea. Nik neuk badaezpada atera nuen, gerora begira zer etorriko zaidan jakin gabe. Eta hara non, aurreko astean aipatu zidaten harrijasotzaileen arteko lehia bat egingo dela eta lau taldeetako baten kapitaina izatea egokitu zaidala. Inoiz ez da jakiten ikasitakoa noiz jarriko duzun martxan, baina hau da momentua ikasi dudana praktikan jartzeko, eta, egia esateko, bertigo pixka bat ematen du. Baina, egia esan, ez dakit benetako bertigoa zerk ematen didan: harrijasotzeko postua utzi eta harria jasotzen arituko denari aginduak emateak, ala ikasitakoa benetan ongi ikasi dudala erakustek.

GUARDIAKO BOTIKAK

OTSAILAK 14, BARIKUA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

OTSAILAK 15, ZAPATUA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

OTSAILAK 16, DOMEKA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

OTSAILAK 17, ASTELEHENA

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

OTSAILAK 18, MARTITZENA

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

OTSAILAK 19, EGUAZTENA

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

OTSAILAK 20, EGUENA

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ZORION AGURRAK



IURRETA

Joan zen barikuan lurretako Juan Orobiogitia Institutuko 3. DBHko ikasleak egon ziren ANBOTOn.



Ari

Zorionak, Ari, familiaren partez! Igandean 8 urte egingo dituzu. Musu potolo bat, neska handi!



Maider

Otsailaren 16an gure Maiderrek 9 urte egiten ditu. Zorionak eta espero dugu horren polita izaten jarraitzea, barrutik zein kanpotik. Oso ondo pasa zure eguna. Musutxuak familia guztiaren partez. Maite zaitugu!



GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

☎ 661 40 14 00
📘 Gozatu Gozotegia
📱 gozaturgozotegia

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/ zorianagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa


Mezua bidali *zorianagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etorri zaitzez Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA

EUSKAL HERRIA



BERRIZKO AGENDA KULTURALA



Txalopin Txalo - Liburu aurkezpen musikatua



Joseba Irazoki - Syo (360º kontzertua)



El profesor de esgrima - Zinema

Otsailak 21, 17:00

Otsailak 22, 19:00

Otsailak 23, 19:00



Otsailak 14
18:00

IBARRETXE KULTUR ETXEAN
ANTZERKIA BULTZATUZ
2025

IZEBAREN KABI MOREA
Alara

Umeentzat

Otsailak 21
19:00

VIDA
La Red

Helduentzat





SARRERAK
Urteak 1€ / Helduak 3€
Sarrerak hartzeko Ibarretxe Kultur Etxean

INMOBILIARIAK



IURRETA ERAIKUNTZA BERRIA. 2 eta 3 logela.

Garajea eta trastelekua.

276.000 €-tik aurrera

AZOKA BERRI 1,2 eta 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. **265.000 €-tik aurrera.**

AUKERA

MATIENA: 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan. **126.000 € C.E.E=G**

DURANGO: Erdialdean dagoen apartamentua. 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan. **143.000 € C.E.E=E**

ABADIÑO: Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du. Hegoaldea. Mendi ikuspegiak. **C.E.E=E 198.000 €**

IURRETA: Bidebarrieta. 70 m². 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Hegoaldea. **C.E.E=F 169.000 €**

ETXEBIZITZAK SALGAI

SAN INAZIO: 3 logela, eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Garajea. **330.000 € C.E.E=E**

ARKOTXA: 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Garajea. **315.000 € C.E.E=F**

SAN INAZIO: 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. 2 terraza. Eguzkitsua. Garajea. Piztina. **265.000 € C.E.E=E**

KOMENTUKALEA: Etxebizitza altua. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatua. 3 logela eta komuna. Garajea aukeran. **198.000 € C.E.E.=E**

SAN AGUSTINALDE: 102 m². Logela bakarra (2 logela egiteko aukerarekin), komuna. Berriztatua. **181.000 € C.E.E=E**

DURANGO: Txaleta. 423 m². 5 logela eta 4 komun. Txokoa. terraza. Lorategia. 4 kotxerentzako garajea. **697.000 € C.E.E=E**

BERRIZ: Duplexa. 3 logela, 2 komun. Garajea itxia 2 kotxerentzako. Ikuspegiak. **C.E.E=E 320.000 €**

ASTXIKI: 147 m². 4 logela eta 2 komun. Ganbara. 2 kotxerentzako garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Balkoia. **C.E.E=E 380.000 €**

KOMENTU KALEA: 70 m². 2 egongela handiak, komuna, sukalde despentsarekin eta egongela terrazarekin. **C.E.E=F 187.000 €**

BERRIZ: Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela, komuna, sukalde eta egongela. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=F 160.000 €**

BASERRIA: Berriztatua. 436 m². 3 soliru. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. **470.3000 € C.E.E.=F**

GARAJEAK SALGAI

IURRETA (Bixente Kanpanaga): 117 m². Lokala. **75.000 €**

SAN FRANZISKO: Trastelekua. 6 m². **3.500 €**

ASTEPE: 40 m². Lokal egokitua. **70.000 €.**

**ETXEBIZITZAK SALGAI****DURANGO**

Askatasun etorbidea: 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

Pinondo: Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

Barrenkalea: Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

BERRIZ

Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO

Atxondo: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

LURSAILAK SALGAI

Tabira: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Berriz: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

Atxondo: Axpe. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

Mendata: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

BULEGOAK ALOKAIKIRUAN**ABADIÑO**

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

LOKALAK ALOKAIKIRUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



C.E.E.E. 209.000 €

DURANGO Madalena: 80 m². Halla, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebalde-iparralde) Argitsua. Zonalde berdeak eta zerbitzueguneak. Egoera onean. Berriztatua. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu hobekuntzak behar.



C.E.E. BIDEAN. 275.000 €

DURANGO Juan Antonio Abasolo: 95, 25 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Egoera onean. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialde- mendebalde) Argitsua. Leku onean kokatua zonalde berdez eta zerbitzuegunez inguratuta. 14 m²-ko ganbara. Jantzia.



C.E.E. BIDEAN. 204.500 €

MATIENA Lauideta: 66,83 m². Sukalde amerikarra, egongela, 3 logela eta komuna duxkarekin. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (hegoaldea) Argitsua. Egoera onean. Zonalde lasaia, herriko sarrera irteeratik gertu. Etxebizitzatik gertu dagoen garajea erosteko aukera + 16.000 €.



C.E.E. F. 158.500 €

IURRETA Dantzari: 58 m². Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-ekialdea, ipar-mendebalde) Leku onean kokatua. ITE-a pasatutakoa, ez ditu hobekuntzak behar.



C.E.E. BIDEAN. 358.500 €

BERRIZ Zengotitabengoa: 191 m². 128,28 m² beheko solairuan. Egongela, sukalde jantzia, 4 logela eta 4 komun. 7,50 m²-ko terraza. 63,55 m² estalpean, txokoarekin (tximiniarekin) eta komuna hidromasajearekin. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebalde) Argitsua eta ikuspegiak. Leku onean kokatua.

**BERRIAK****ATXONDO**

Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €.**

DURANGO

Askatasun Etorbidea: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

Barrenkalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Bartolome Ertzilla kalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara.

Lehen 170.000 € - Orain 159.000 € / E.E.Z=E

Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. igogailua. **335.000 € / E.E.Z=E**

Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

Santikurutz Kalea: Etxebizitza bifamiliarra eraikitako 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

ABADIÑO

Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 €.**

Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **325.000 € / E.E.Z=G**

Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

ATXONDO

Jose Antonio Agirre: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara. Igogailua. **136.000 € / E.E.Z=E**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitako baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitako baserria lursailarekin. **350.000 €**

GARAIA

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitako lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **95.000 € / E.E.Z=F**

IZURITZA

Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak.

LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI



LAU-HORTZA

SERGIO
MURILLO CORZO

Lotu-askatu dialektika

Umeen hazkuntza kontraesan bezalako prozesua da. Halantxe bizi dot nik behintzat.

Jaiotakoan bere kabuz bizirauteko gai ez dan gizabere, lotura primarioei esker, askeago bihurtzen da bere indibidualtasuna garatzeko eta adierazteko.

Koxkortutako umeak autonomiaren bide hori jorratzen dauan neurri berean, segurtasun eza eta isolamendua pixkanaka sentitzen hasi daiteke. Horreek baretu eta txikitze, batetik, bere etxeko eta inguruko harremanak izango ditu helduleku, eta bestetik, gizarte mailan erakitako egiturak -erakundetuta-koak- izango dauz bitarteko; gizarte zerbitzuak, osasun sistema edota hezkuntza sistema, esaterako.

Giza askatasunaren hazkunde-prozesuak umeen hazkunde-prozesuan erraz ikusten dogun izaera dialektiko bardina dauka. Inork ez dogu askatasunean atzera egin gura... baina onartu beharra daukagu askatasun maila hori bizigarria eta gozagarria egiteko alkarren arteko harremanak eta gure erakundeak behar doguzana.

Alkarren arteko harremanak gehiago zaindu eta sustatu beharko gendukez, baita gure erakundeak gehiago indartu ere, aske bizitzen laguntzen deuskuelako. Niretzat daukat, aitortza horretatik bestelako jardunbide batzuk eratorriko liratekezala gure egunerokoan.

AKUILUA



"Gatx da bildotsa ondo erretzea burduntzian"

LORENZO CIARSOLO ARRIAGA BURDUNTZIAN ERREKETAK EGITEN DITU

Zapatuan XXV. Burduntziko Bildots Txapelketa egingo dute Abadiñon. Bertan izango da Lorenzo Ciarsolo (Abadiño, 1946), azken 34 urteotan egin duen legez

Aitziber Basauri DURANGO

Lorenzo Ciarsolok Abadiño Burduntzi Txapelketako makina bat garaikur du etxean, Durangon: "Ez dakit esaten zenbat diren; 20tik gora". Aurten ere irabazten ahaleginduko dela dio.

Gogoan duzu noiz erre zenuen lehenengo bildotsa burduntzian?

Bai, 16-17 urte izango nituen. Abadiño 22 bat laguneko kua-drillari Urkiolara joan eta hango

Buenos Aires jatetxean bildotsa jatea okurrutu zitzaigun. Hara heldu ginenean, ez ziguten esan, ba, bildotsa erretzeko arduraduna ezin izan zela joan? Lau lagunek elkarri begiratu eta esan genuen: "Emango diogu berotu bat?". Esan eta egin. Gutariko inork egundo ere erreketarik egin barik, bildotsa erre genuen, tabernakoak lagunduta. Mundiala geratu zen; ez zegoen hain ondo

prestatuta, baina bildots ha izan zen onena, dudarik barik. Halantxik hasi nintzen, neure kabuz. **Kasualitatez hasi zinen erreketekin.** Irakasle bakarra izan nuen, Lazpita. Berak irabazi zuen Abadiño I. Burduntziko Bildots Txapelketa. Orduan ezin izan nuen parte hartu, baina hurrengo urtean bai, Lazpita epaile zela. Orduan esan zidan bildotsa zelan erre erakutsiko zidala.

Inoiz pentsatu duzu erretiratzea?

Zenbaterik galdetu ote didate ea noiz utziko dudana, besteei lekua uzteko! Baina gorputzak lagundu bitartean parte hartuko dut.

Zein da sekretua bildotsa burduntzian ondo erretzeko? Gatx da?

Gatx da bildotsa ondo erretzea burduntzian. Pazientzia behar da, tonaka, eta sua ikatzagaz patxadaz egitea. Beroa temperatura berean mantentzea da gatxena. Edabea ere garrantzitsua da. Ardo zuria, gatxa, berakatzeta eta ozpina erabiltzen ditut.

Txahala eta oilaskoa ere erre izan dituzu burduntzian.

Bai. Eibarko sanandres batzuetan kanalean 880 bat kiloko txahala erre nuen, garabia erabilita. Eta Tabirako jaietan urteetan egin ditut erreketak. Urtean 200 bat bildots erretzera heldu naiz. Abadiño soka tiratzen taldearen bitartez, zortzi lagun Olot-era (Herrialde Katalanak) joan ginen, 78 bildots erretzera.

Euskal Herriko Burduntzi Txapelketan ere parte hartu duzu.

Bai, birritan. Ni baino azkarrago ibili ziren eta ez nuen txapelik lortu (barrez). Lehenengora Durangoko Angel Garategaz joan nintzen, eta bere semeak irabazi zuen. Bigarrenean Otxandioko lagun batek irabazi zuen.

Baduzu nori eman testigua, ezta?

Suhiek erreketak egiten dituzte, eta ilobak ere badatoz, astiro-astiro. Pozgarria da. Abadiño gerrogo eta gazte gehiago dabil horretan.

"EIBARKO SANANDRES BATZUETAN KANALEAN 880 BAT KILO ZITUEN TXAHALA ERRE NUEN"



Smurfit Westrock
Central Forestal

+55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Westrock
Nervión